

Leioa

Leioako turismoa

Egileak:

Sortzaileak

LH5 A



Leioa gozatu

Bob



- Leioa, non ametsak errealitate bihurtzen diren.

- Leioa, donde los sueños se hacen realidad.

- Leioa, where dreams come true.

Aurkezpena


Kaixo, lagunok Bob naiz.

Oso jakin-min handia naiz, betidanik izan dut gauza berriak ezagutzeko eta gozatzeko gogo bizia. Ausarta naiz oso ausarta, erronkei aurre egin eta gaitzitzea lortzen dut.

Presentación

Hola, amigos. Me llamo Bob. Soy curioso, desde siempre he tenido interés en descubrir cosas nuevas y disfruto mucho haciéndolo, también soy muy valiente hago frente a las dificultades y consigo superarlas.

Leioa begirada batean



Kokapena

Ipar isurialdea.Â

Bizkaian, iparmendebaldea

Erlikebe-elementuak

-Parke naturalak: Pinosolo parkea, Artatza parkea eta Elexalde parkea.

-Serantes(mendia)

- Nerbioi (ibaia)

-Kurkudi (mendia)

Bestelako informazioa

-Serantes mendiak 451,9 metro neurtzen ditu.

- Nerbioi ibaiak 72 km-ko luzera du.

- Kurkudi mendiak 127 metro neurtzen ditu.

- Leioak 32.172 biztanle ditu.

- Biztanleen artean neskak 16.297 (%50,7)Â eta mutilÂ 15.498Â (%48,2) dira.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Artatza



Artatza Leioako parke natural bat da, Leioako iparmendebaldean kokatuta dago.

Leku zabala da, bere erdialdean lorategi bat dauka, aldapa behera Â joaten bazara parke eta taberna bat ikusiko dituzu. Zuhaitz eta landare mota asko aurkitu ahal dira eta txakurrak paseatzeko leku aproposa da.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)



Pinosolo, Leioako parke natural bat da, Leioako iparmendebaldean kokatuta dago. (Artatzaren alboan)

Pinosolok bi bide dauzka; lehenengoak, aurrera eramaten zaitu eta bertan magnolioak eta skapepark bat aurkitu ahal dituzu.

Bigarren bidetik abiatzen bazara, urmael txiki bat aurkituko duzu eta gora joaten bazara, lehenengo bidearekin elkartzeko zara.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Obeliskoa



Obeliskoa, Leioan kokatuta dagoen eskultura bat da, gezi forma hartzen duena, Leioako hegoekialdean dago.

Plaza baten erdian dago, Obeliskoa eutsi egiten da eskailera batzuen bitartez. Oso altua eta fina da, beraren goialdean punta zorrotz bat dauka eta marroia da.

Guk korrika ospatzen dugunean han geldialdi bat egiten dugu.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Leioako Kultur Etxea




Leioako Kultur Etxea, Leioako ekialdean kokatuta dago.

Eraikina kristalez osatutako Kultur Etxea da; bertan, pelikulak, antzerkiak, liburuak... ikusi eta irakurri ahal dituzu. Edifizioaren aurrean plaza bat dauka.


Â

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, Betiko Ikastolatik Artatza IKastolara joateko.

Deskribapena

Betiko ikastolatik aterako zara eta ezker aldean daukazu biribilgunera joango zara; hor egonda, eskuinera biratuko duzu eta ikusten duzun aldapa jeitsiko duzu semaforo bat aurkitu arte.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, Artatza Ikastolatik Artatza Parkera joateko.

Deskribapena

Lehenengo, semaforoa gurutzatu behar duzu; horren ostean, aurrera egin eta hiru bide ikusiko dituzu. Aurrean daukazun bidetik abiatuko zara harrizko biderarte. Ekuinera biratuko duzu eta aurrera egingo duzu jauregia ikusi arte.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko, Artatza Parketik Pinosolo Parkera joateko.

Deskribapena

Aurrera jarraituko duzu harrizko bidea jarraituz. Euzko Gudariak Etorbidetik errepidea ikusten duzunean zebra bidea gurutzatuko duzu; zebra bidea gurutzatutakoan Av. Txikia kalea jarraituko duzu pinosolorarte.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko, Pinosolo Parketik Skape Park-era joateko.

Deskribapena

Pinosolora helduta, bidegorri bat ikusiko duzu, eta bidegorria jarraituz gero, skape park-a ikusiko duzu aurrez aurre..

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da), Skape Parketik Betiko Ikastolara joateko.

Deskribapena

Skate Parkera helduta, Aldabarrene kalea igo eta biribilgune bat ikusterakoan, eskuinetik hartu eta lehenengo bidea hartuko duzu. Aurrera egin hurrengo biribilgunerarte eta han, eskuina hartuko duzu eta lehenengo bidea hartuko duzu. Aurrerago bi bide aurkituko dituzu eta han, aurrera jarraituko duzu. Beste bi bide aurkituko dituzu aurrerago; han, ezkerrera biratuko duzu eta aurrera jarraituko duzu Betiko Ikastolara arte.

Bisitarientzako gomendioak

Denetariko arropa ekarri, hemen eguraldia asko aldatzen delako.

Mendiko arropa ekarri, hemen mendi asko eta politak daudelako.

Trae todo tipo de ropa, porque aquí el clima cambia mucho.

Trae tu ropa de montaña, porque aquí hay muchas montañas hermosas.

Bring all kinds of clothes, because the weather here changes a lot.

Bring your mountain clothes, because there are many beautiful mountains here.